



PLANGINTZA ESTRATEGIKOA NGKarentzat_

2010 | 2013_



NAFARROAKO GAZTE KONTSEILUA

NAFARROAKO GAZTE KONTSEILUAREN DEFINIZIOA

Xedea

Gaztediaren esku-hartzea Foru Erkidegoaren garapenean sustatu eta, era berean, Nafarroako gazteen eskubideen eta interesak defendatu.

Ikuspegia

Gaztediarekin erlazionatutako gaietan erreferentea izan Foru Erkidegoan.

Balioak

- ‡ Demokratikoa, askea eta parte-hartzailea.
- ‡ Independentea eta anitza
- ‡ Giza-zuzentasuna eta gazteentzako aukeren berdintasuna defendatzen ditu

NGK ETORKIZUNeko GAZTERIAREN LEGEAN¹

Kontzeptua, izaera eta helburuak

Nafarroako Gazte Kontseilua eskubide publikoko erakundea da, nortasun juridiko propioa du, ahalmen osoa du bere helburuak bete ahal izateko eta Lege honen, bere araudiaren eta garatzeko aplikatu ahal zaizkion gainerako arauen arabera gobernatuko da.

Nafarroako Gazte Kontseiluaren funtsezko helburuetako bat atxikimendu askerako bidea eskaintzea da, batetik, horrela sustatu ahal izateko Foru Erkidegoko gazteen esku-hartzea garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean eta, bestetik, gazteen eskubideen alde lan egitea hauen diskriminazioa eta baztertzea eragotziz eta hauen garapen osoa bultzatuz.

¹ Gazteriari buruzko Foru Legerako zeharkako oinarri-agirian jasotakoaren arabera.

Funtzioak

- ‡ Aukera berberetan, gazteen elkartegintza sustatu, garapena bultzatuz eta beharrezkotzat hartzen duen edo eskatuko zaion euskarria, laguntza eta aholkularitza emanaz.
- ‡ Tokiko zein Eskualdeko Gazte Kontseiluak bultzatu eta sustatu Nafarroako Foru Erkidegoan.
- ‡ Gazteek berdintasunezko era batean erabakietan eta dagozkien neurrietan parte har dezaten ziurtatzeko ekintzak sustatzea.
- ‡ Gazteei dagozkien gaietarako Administrazioak ezarritako Kotsultarako Organoetan parte-hartzea, bai eta Administrazio berari interesgarriak izan daitezkeen gaiak proposatzea ere.
- ‡ Administrazioaren eta gazteen arteko solaskidea izan.
- ‡ Nafarroako Gobernuarekin lan egin honen gazte politikaren elaborazioan, gazteen problematikarekin erlazionatutako ekintzak eta kanpainak bultzatuz.
- ‡ Gazteei zuzenean dagozkien lege-aurreproiektuei buruz eta foru dekretuen proiektuei buruz informatu.
- ‡ Gazteekin erlazionaturiko gaiari buruzko txostenak edo ikerketak sortu, bai NGKaren ekimenaren bitartez, bai Administrazioak horrela eskatuta, generoaren ikuspuntua kontuan hartuta. Helburu hau dela eta, NGKak Administrazioari eskatu ahal izanen dio beharrezkotzat hartutako informazioa.
- ‡ Gazteekin erlazionatutako gaietan nazioarteko, nazioko eta eskualdeko kooperazioa sustatu.
- ‡ Nafarroako Gazte Kontseiluko kideak ordezkatu gobernuko zein gobernukoak ez diren erakunde eta foroetan, gazteenak eta gazteentzat direnean.
- ‡ Gazteen bizi-kalitatea hobetzea eta aisialdiaren garapen osasuntsua bultzatzeko jarduera kulturalak, informatiboak, trebakuntzakoak eta parte-hartzaileak antolatuz.
- ‡ Gazteen zerbitzurako Foru Erkidegoaren ondare eta baliabideen kudeaketa eraginkorrerako neurriak hartzea proposatu eta landu, bai eta hauen erabilerari buruzko irizpideak ere.
- ‡ Gaztediaren gaiari buruzko eskumenak dituen Foru Erkidegoko Administrazioaren Departamentuak eskatu edo eskuordetutako beste hainbat.

NGKaren AMIA/DAFO AZTERKETA²

Ahuldadeak

- ! Kide diren elkarten esku-hartze eta inplikazio eza
- ! Elkarten urruntzea
- ! Elkartegintza tradizionaleko ereduaren krisialdia
- ! Ekonomiarenak eta baliabideenak. Egoitza txikia eta iristen zaila
- ! Iruñean zentralizatuta
- ! Kontseilua gizartean ezezaguna

Mehatxuak

- ! Elkartegintzaren maila jaitea
- ! Kontseiluaren birsorkuntzan egon daitekeen atzerakada
- ! Gaztediari zuzendutako gastu sozialean murrizketa
- ! Erakundeekin dagoen solasaren eta lankidetzaren apurtzea
- ! Batzorde Iraunkorreko sintoniaren galtzea
- ! Batzorde Iraunkorreko aniztasuna galtzea

Indarrak

- ! Batzorde Iraunkorreko gehien parte-hartzea
- ! Batzorde Iraunkorren, nahiz eta anitza izan, adostasunetara iristeko ahalmena
- ! Talde teknikoaren motibazio eta inplikazioa
- ! Barne-kudeaketaren hobetzea eta talde teknikoaren koordinazioan oinarritutako eredu baten ezartzea
- ! Kontseiluaren harreman instituzionalen hobetzea
- ! Sinesgarritasun eta oihartzun mediatikoaren hobetzea

Aukerak

- ! Hurbiltze hasiberria Kontseiluaren eta elkarte kideen artean
- ! Langile-taldearen baldintzen aldaketa eta sendotzea
- ! Lankidetzaren hitzarmenen sinatzea
- ! Gazteriaren Legearen bideratzea
- ! Arautu gabeko hezkuntzaren eta NGKak egindako jardueren onarpena
- ! Oihartzun handiko jarduerak egitea eta irudi korporatiboaren berritzea
- ! Sarean lan egitea eta kideak diren elkarten artean ezagutza hobetzea

² Ahuldade, mehatxu, indar eta aukeren azterketa.

NGKaren ERAGINAREN INGURUNEA

Nafarroako Gazte Kontseiluak, gazteek sortutako eta eraturako erakundea den heinean eta kontuan hartuta gazteak dituela onuradun nagusi gisa, aurrean izan behar du Foru Erkidegoko gaur egungo gaztediaren errealitatea.

Horretarako beharrezko izanen da urtero eta urteko Ekintza-lerroak landu aurretik, une horretan Nafarroako gazteengan eragina izaten ari diren arazoak, beharrak eta gabeziak Batzorde Iraunkorrek aztertzea.

Hauek behin ezagututa, Ekintza-lerro orokorrak eta arlo bakoitzekoak landuko dira eta helburu bakarra izanen da errealitatearen azterketan jasotako gaiei erantzuna ematea. Ondoren, dagokion Batzar Orokorrean eztabaidatuko dira onartuak izateko.

Era berean, guztiz onuragarria izanen da Batzorde Iraunkorrek gazteon ezaugarri diren arlo positibo eta indarretan ere begia jartzea. Esate baterako: boluntarioria, anbizioa, gizartearen gainerako arloek baino balio-eskala argiagoa, aurreko belaunaldiek baina kontzientzia ekologiko handiagoa,...

Ingurunearen behaketaren ariketa honetan, Nafarroako Gazte Institutuak aurreikusita duenaren arabera laster abiatuko den Gazteen Behatokiak ateratako ondorioak Batzorde Iraunkorrek erabili ahal izanen ditu.

Oraingoz, Nafarroako Gazte Kontseiluak erantzuna ematen saiatu beharko den Foru Erkidegoko gazteei dagozkien arazo, behar eta gabezi³ hauek ikusi ditu Batzorde Iraunkorrek:

³ Guztie hauetan, halaber, genero-ikuspegia eta aukeren berdintasuna sartu behar dira.

EMANTZIPAZIOA

- ! Lanik eza
- ! Etxebizitzak lortzeko eza
- ! Lanpostuen ezegonkortasuna
- ! Sexuen banaketa
- ! Gazteen artean gogo ekintzaileen eza
- ! Motibazio eza
- ! Behin-bahinekotasun handia

HEZKUNTZA

- ! Eskola-porrota
- ! Errealitatera ez egokitutako hezkuntza sistema
- ! Lanbide-aholkularitza on baten eza
- ! Jarduera profesionalerako gainkualifikazioa edo kualifikazio eskasa

OSASUNA

- ! Elikaduraren arazoak
- ! Estereotipo sexistak hedabideetan
- ! Droga-menpekotasunak
- ! Gaitz psikologikoak (depresioa, estresa...)
- ! Nahi gabeko haurduntza
- ! Kutsatze sexualeko gaitzak
- ! Nagusia den eredu sexualari buruzko estereotipoak
- ! Gaztediaren autoestimua eta giza-trebetasunak

GIZARTEA

- ! Trafiko-istripuak
- ! Lan istripuak
- ! Interkulturalitatearen eza ingurune kulturranitz batean
- ! Maskulinitate berrien zein genero-berdintasunaren aurrean matxismoak irautea
- ! Indarkeria: sexuala, bullinga, moobinga, terrorista, xenofobia, generokoa...
- ! Elbarrien gizarteratzearen eza
- ! Aisialdirako aukeren eza
- ! Asmo kulturalen (tradizionalak eta gaur egungoak) zein ondare material eta inmaterialarekiko interes eza.
- ! Aukeren berdintasun eza landa-ingurunean
- ! Gizarte-balioen krisia
- ! Gazteentzat moldatutako aukerazko gaueko aisialdiaren eza.
- ! Kontsumoaren menpekotasuna
- ! Dimentsioaniztuneko krisi ekonomikoa eta etika ekonomikoaren krisia
- ! Gazte etorkinen bertakotzearen eza, batez ere, aisialdi eta denbora libreko unetan.
- ! Gazte etorkien parte-hartze aktiboaren eza

NGKren PLANGINTZA ESTRATEGIKOA. 2010 | 2013

ZER DA PLANGINTZA ESTRATEGIKO BAT?

Plangintza estrategikoa dokumentua bat da eta bertan Nafarroako gazte elkarteek haien ardurak zein kezkek adierazten dituzte eta Nafarroako Gazte Kontseiluak 2010-2013 ekitaldian bete behar duen estrategia finkatzen dute.

NGK-k ZERGATIK BEHAR DU PLAN ESTRATEGIKO BAT?

Nafarroako Gazte Kontseiluaren ustez garrantzitsua da Nafarroako gazteen zein NGK beraren egungo errealitatea aztertzea kontseiluaren helburuak eta lana doitzeko epe ertain baterako.

NGK-ak plangintza estrategikoa landuz, ildo batzuk finkatzen ditu helburu orokor gisa, ildo hauek baliagarriak izanen baitira oinarri bezala bete behar diren helburu espezifikoak definitzen dituzten ekintza-lerroak lantzeko garaian.

NGKaren Batzar Orokorrak urtero onartuko ditu helburu espezifiko horiek eta ekintza zehatzak proposatuko diren Ekintza-lerroen barruan, bai orokorretan zein Batzorde Iraunkorrak arlo bakoitzean proposatutakoak.

NGKarentzako ESTRATEGIEN DEFINIZIOA

Erakundeen eremua

Legediaren aurrean

- ‡ Gazteengan eragina duten legeen eta araudien elaborazioan gazteen benetako parte-hartzearen alde lan egitea
- ‡ Gaztediaren esku-hartzea sustatzea dagokion legegintzan edo politiketan
- ‡ Gazteengan eragina duten politika publikoak sortzea edo/eta aldatzea sustapena

Solaskide bezala

- ‡ Gazteei dagozkien Administrazioaren kontsultarako organoetan parte-hartzea
- ‡ Presio-talde edo *lobby* bezala geure buruak eratu
- ‡ Harreman ona mantendu Erkidegoko Administrazio Publikoekin

Nafarroako gazteen ordezkari gisa

- ‡ Eremu publikoetan zein pribatuetan Kontseiluaren ordezkari izatea bultzatu
- ‡ Koordinazio-harreman estua eduki Espainiako Gazte Kontseiluan (CJE) presentzia eta esku-hartze aktiboa izanda

Barneko eremua

Kudeaketarena

- ‡ Barne kudeaketa plangintza sortu eta ezarri

Batzorde Iraunkorrari buruz

- ‡ Batzorde Iraunkorreko kideen ahalik eta esku-hartze handiena sustatu
- ‡ Hausnarketarako eremuak sortu ekintza edo funtzionamendurako proposamen berriak lantzeko
- ‡ Batzorde Iraunkorraren ohiko lana aurrera eraman

Gure talde teknikoari buruz

- ‡ Talde teknikoaren lanpostuak kontsolidatu eta moldatu Plan Estrategiko honen helburuak betetzeko, beti ere, NGKaren oreka ekonomikoa gordeta
- ‡ NGKaren berezko lan-hitzarmena edo ituna garatu. Hitzarmenak teknikarien lan-baldintzak jasoko ditu eta Batzorde Iraunkorraren eta talde teknikoaren arteko adostasuna islatuko du.

Komunikazioari buruz

- ‡ NGKaren komunikazio-plangintza eta berezko marketin-estrategia garatu
- ‡ Komunikazioaren arloan proaktiboak izan
- ‡ Gazteek gehien erabilitako komunikazio-bideak (Internet, sare sozialak,...) zehaztu eta erabili NGKarekin erlazionatutako informazio guztia helarazteko.
- ‡ Kale ekintzak pentsatu eta egin NGK ezagutzera emateko honen kide diren elkarten artean eta gaztediari orokorrean.

Lanaren eremua

Irtenbideak proposatu

- ‡ NGKaren barnean arloak diseinatu eta garatu gaztediaren problematikari erantzuna eman ahal izateko.
- ‡ Une bakoitzean Nafarroako gaztediak eskatutakoei erantzuna emateko ekintzak egin, bai arazoak, bai beharrak, lantzeko.
- ‡ Nafarroako gazteen etengabeko errealitatearen azterketa eta ezagutza, bi noranzkoko harremana egonda NGKaren eta Foru Erkidegoko gazteen artean.

Zerbitzu eta baliabideak

- ‡ Nafarroako gazteek eskatutako zerbitzuen prestaketan eta baliabideetan NGKa erreferentea izanen da
- ‡ NGKak editatu eta eguneratuta mantenduko du bere baliabideen gida, ahalik eta zabalkunderik handiena emanez.
- ‡ Gazteen intereseko informazio orokorra aztertu zein bildu eta hauek egindako eskaerei erantzuna eman.
- ‡ Bildutako informazioarekin aholkularitza-lana egin.

Finantza-eremua

Egiturazko baliabideak

- ‡ NGKari behar dituen lekua eta materialak eman bere helburu orokorrak baldintza duinetan bete ditzan, beti ere, gardentasuna zein etika gordeta eta arriskuan jarri gabe Kontseiluaren independentzia eta autonomia.

Finantza-baliabideak

- ‡ Finantzaketa-iturrien etengabeko bilatzea, emanen dizkion egonkortasuna eta autonomia lortzeko dituen helburuak egiteko.
- ‡ Nafarroako Gazte Institutuarekin adostutako hitzarmenaren egonkortzea eta hobetzea lortu
- ‡ Ziurtatu urteko aurrekontu-proposamena bat datorrela NGKak beharko duen funtzionamendu eta jarduerarekin